

HOTZALDI

kaleko hotzetik, lagunarte epelera



Aitzol Mendiburu (Oiartzun, 1991) Hotzaldiko, CARITAS GIPUZKOAREN gaueko harrera zentroko arduraduna da. Bat baino gehiago bezala, koronabirusak, Aitzol, bere atzaparretan harrapatu zuen martxoaren amaieran; ondorioz hilabete eman behar izan zuen etxean sartuta. Apirilaren azken txanpan ekin zion berriz bere lanari Hotzaldin.

Egiguzu egungo Hotzaldiren deskribapena.

Egoitzak lanean jarraitzen du gau eta egun. Bertan dauden pertsonak, dutxak, eta garbitegia erabili, eta otorduak eta lo egiteko aukera dute. Badaramatzagu egun dezente egoitzan sartuta, eta Hotzaldiko hamasei parte hartzaileak -emakume bat eta 15 gizon- bertan konfinatuta jarraitzen dute. Euskal Herritik kanpo jaioak dira guztiak. Gehienak magrebtarrak dira, baina badira tartean Sahara hegoaldekoak, irandarrak... ere. Gazteak dira guztiak, 23-25 urte bitartekoak”.

Zer moduzko giroa duzue Hotzaldin?

Ona! Egun dauden gazteetatik, ia guztiak Ramadana egiten ari dira, eta gure proiektua egoera horretara egokitu ahal izan dugu. Beraiek asko estimatu dute Ramadanaren beharretara eguneroko jarduna moldatu izana.

Proiektuak zenbat jende aterpetzeko egokituta dago?

Berez, 47 pertsona.

Koronabirusa hasi zenean zenbat pertsona zeuden?

36-38 lagunek egiten zuten lo Hotzaldin garai hartan. Egoitzak Koronabirusari aurre egiteko baldintza guztiak betetzen ez zituenez -pertsonek arteko tartea...- Aldundiak, Orion (Txurruka) duen aterpetxera Hotzaldiko ia 20 lagun eraman zituen.

Orduan arnas piska bat hartu zenuten.

Bai. Jende kopuru harekin, egungo Hotzaldiren eremu mugatua, ez zen batere erraza elkar-bizitzarako. Adibidez, ohetik ohera, metrotik gorako distantzia mantentzea, ez zen posible. Aldundiak pertsona batzuk aterpetuko zituela eskaintza egin zigunean, asko eskertu genuen, eta orain, dezente lasaiago gaude denok.

Eguneko 24 orduak gauza askotarako aukera ematen dute.

Hala da. Adibidez, Hotzaldin dauden 16 pertsonak are gehiago ezagutzekoa. Baita beraiek gu -hezitzaileok- ere. Egonaldia oparoa izaten ari da beraiek asko irekitzen ari baitira. Ramadamean murgilduta gauden honetan, gaualdean beti daude laguntzeko prest: mahaia jartzen... Elkarrekin afaltzen dugu giro ederrean.

Hezitzaileak beraien Ramadaneko ohituretara egokitzen ari zarete.

Bai. Egun guztia igarotzen dute horretan. Ez du zentzurik gu dinamika horietan ez sartzea. Beraientzako ingurukoekin konpartitzea oso garrantzitsua da, beraz, gustura gaude.

Egun, hamasei lagun Hotzaldin izateak, atsedean hartzeko eremua beste era batean planifikatzeko aukera emango zizuen.

Lo egiteko espazioa erabat ezberdina da. Hau da, ia 50 lagun izatetik, 16 izatera, aldea dago. Lo egiteko dinamika ere aldatzen ari dira. Hitz batean, denok lasaiago gaude. Une honetan, beste egoera erabat berria bizi dugu Hotzaldin.



Intimitatean ere irabaziko zenuten.

Dudarik gabe! Egoitzak, espazioa irabazi du. Lehen eskaintzen genituen zerbitzuei eusten diogu baina pertsona gutxiago egoteak beste lasaitasun bat suposatzen du: dutxatzeko aukera zabala...

Nahiz eta Hotzalditik 'ateratzerik' ez izan.

Bai. Egia esan guk, langileok ere konfinamendu honetan asko ikasten ari gara; egoitzan daudenekin harremanak sakontzea... Etxean sartuta egoteak zerbait positiboa badu, beraien ondoan ikasten ari garela da. Egia esan, jarrera bikaina erakusten ari dira.

Zeinek esango zuen duela hilabete batzuk, Hotzaldira sartzeko itxaron zerrenda egotetik, orain hilabete pasa, eguneko 24 orduak elkarrekin igaroko zenituztenik kalera atera ezin gabe.

Orain dela lau hilabeteko kontuak, eta gaur egungoek ez dute zerikusirik. Inork ez zuen egoera hau etorri zitekeenik ere aurreikusten. Baina hemen dago, eta ikasketa bat izaten ari da guztiontzat. Pandemia honen ondorioek, etorkizunean, herritarron pentsatzeko era aldatuko duelakoan nago.

Denbora honetan Hotzaldin dauden pertsonak ezagutzeko aukera izan duzu. Zer ikusi duzu orain, lehen ikusten ez zenuena?

Gauza asko! Eurek ere gauza gehiago jakinarazten dituzte. Era honetan, beraiek gehiago ulertzeko kapaza naiz; beraien pentsatzeko modua, zergatik hartu zuten hona etortzeko erabakia...

Egoera honek, hasiera izan duen bezala, bukaera ere izango du. Zein izango da Hotzaldiren biharamuna hau guztia amaitzen denean?

Inork ez daki. Gure zerbitzuak eskaintzeko modua aldatu egingo delakoan nago. Gaixotasun batek dena hankaz gora jarri du, eta Hotzaldin dauden pertsonak oso zaugarriak bihurtzen direla ikusten dugu.



Ez legoke gaizki erregularizazio bat gauzatzea, ezta?

Bai, ados nago. Azkenean ez dakigu zein izango den egoera honen amaiera erreala. Aurki deseskaladaren fase berri bati ekingo zaio, eta koronabirusari espreski aurre egiteko egokitu diren egoitza eta aterpetxeekin zer gertatuko da? CARTA GIPUZKOA osatzen dugunok, kezkatuta gaude. Hotzaldi bezalako estrukturarik ez badago, berriz ere, pertsona hauek, kalera itzuli beharko al dute?

Administrazio publikoak, aurrerantzean ere, zerbait esan beharko du pertsona hauen etorkizuneko egoeraren inguruan, ezta?

Hor dago koska! Hau guztia amaitzean, garai bateko egoerara itzuliko al gara? Gaixotasun honek argi erakutsi du pertsona hauek zein zaugarriak diren; ez dute baliabiderik. Arazoa, estrukturala da. Beraz, administrazio publikoak buelta on bat eman beharko lioke egoera honi. Hausnarketa bat, alegia.

Momentuz, Hotzaldi boluntarioz ere hustu da, nahiz eta beraien berotasuna antzematen duzuen.

Bizi dugun osasun egoerarekin boluntarioek ezin dute Hotzaldira etorri baina askotan gogoratzen gara beraiez, baliabide oso garrantzitsu eta aberatsa baitira bai Hotzaldirentzako, eta noski CARITAS GIPUZKOArentzako ere.

Boluntario izan nahi duenari ere deia bat egin nahiko nieke. Hotzaldik, gauz funtzionatzen du, eta gauak badu xarma. Egoitzak ere badu horretatik asko. Egun guztia kalean ematen dute -europear, eguzkitan...- eta gauean Hotzaldira etortzen direnean, boluntarioekin, eta boluntarioek eurekin hitz egiteko gogoazaltzen diete. Berezia da oso. Edonor animatzen dut boluntario izanez bizipen horiek ezagutzera; eman eta jaso.

